

# EHU edonondik ebaluazioa

Ikasleen ebaluazioa urrutitik egiteko  
beharrezko diren egokitzapenak egiteko  
prozedura eta laguntza



## Edukia

<b>1.- ZERGATIK ETA ZERTARAKO EHU EDONONDIK/EBALUAZIOA?.....</b>	<b>3</b>
<b>2.- URRUTIKO EBALUAZIOARI BURUZKO AHOLKU OROKORRAK.....</b>	<b>5</b>
2.1. EGUTEGIA.....	5
2.2. URRUTIKO EBALUAZIOA: ZER IZAN BEHAR DA KONTUAN?.....	6
2.3. ARAZO ETIKO ETA LEGE ARAZOAK URRUTIKO EBALUAZIOAN.....	8
2.4. HEZKUNTZA INKLUSIBOA.....	9
<b>3.- IRAKASKUNTZA GIDAK EGOKITZEA URRUTIKO EBALUAZIO SISTEMA     EZARTZEKO.....</b>	<b>10</b>
3.1. PAUTAS BÁSICAS.....	10
3.2. EGOKITUTAKO IRAKASKUNTZA GIDAK GESTIONATZEA, ONARTZEA ETA ARTXIBATZEA.....	12
<b>4.- URRUTIKO EBALUAZIORAKO ESKURAGARRI DAUDEN ESTRATEGIA ETA     BALIABIDEAK.....</b>	<b>13</b>
4.1. TEST MOTAKO GALDERA SORTAK ETA PROBAK.....	14
4.2. AHOZKO PROBAK.....	16
4.3. AURKEZTU BEHARREKOAK.....	17
4.4. LANAK, PROIEKTUAK ETA PORTFOLIOAK.....	19
<b>5. AHOLKUAK KANPOKO PRAKTIKETARAKO ETA PRESTAKUNTZA DUALERAKO...20</b>	
<b>6.- GRADU AMAIERAKO LANEN, MASTER AMAIERAKO LANEN EDO DOKTOREGO     TESIEN DEFENTSA.....</b>	<b>22</b>
6.1.- GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)/MASTER AMAIERAKO LANA (MAL).....	22
6.2.- DOKTOREGO TESIAK.....	23


## 1.- ZERGATIK ETA ZERTARAKO EHU edonondik/ebaluazioa?

COVID-19aren ondorioz ezarritako osasun alerta luzatu egin denez, eta seguruenik pertsonen artean gorde beharreko distantziei buruzko neurriak mantendu egingo direnez, UPV/EHUK erabaki du etetea irakats jarduera presentzialak 2019/20 ikasturtea bukatu arte.

Horrela zehaztu zen UPV/EHUko errektoreak 2020ko apirilaren 8an emandako erabakian, eta COVID-19aren pandemiak sortutako salbuespen egoerak iraun bitartean UPV/EHUko graduako eta masterreko tituluak irakaskuntzari eta ebaluazioari buruzko jarraibideetan (2020ko apirilaren 8an onartuak Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorren, Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak proposatuta).


Jarraibide horien 4. puntua garatzeko, eta Gobernu Kontseiluak onartutako akordioaren 3. atalarekin bat etorritik, honako hau aurkezten da: EHU edonondik/ebaluazioak, ikasleen ebaluazioa urruneko egoerara eta onlineko baliabideetara egokitzeko aholkuak eta prozedurak. Hau, EHU edonondik estrategian ezarritako oinarrien osagarri da, eta asmoa da ikasleen ebaluaziorako zehaztasun handiagoak ezartzea eta eraginkortasuna hobetzea, kontuan izanda ohiko irakasgaiak ez ezik, praktikak eta gradu eta master amaierako lanak ere ebaluatu behar direla.

Beraz, helburua da irakasleei laguntza ematea ahalik eta ondoren egokitzeko urrutiko ebaluaziora, bai eta sortuz doazen eta etorkizun hurbilean sor daitezkeen zalantzak argitzea ere. Horretarako, kontuan hartu ditugu Gobernuak eta unibertsitateek egindako proposamenak eta iradokizunak, ahaztu gabe, bestalde: a) ebaluazioa urrutitik eta online egiteko dauden tresna teknologikoak asko hobetu behar direla eta ez direla, inondik inora, konponbide ideala; b) urrutiko sistemaren bidez ezin dela egin modu presentzialeko ebaluazio bera, ez dagoela batetik bestera zuzenean pasatzerik; c) irakasgai bakoitzak bere ezaugarriak dituela, eta, beraz, kasu bakoitzerako sintesi kritikoa egin beharko dela ebaluazioa ahalik eta ondoen egokitzeko.



Beraz, EHU edonondik/ebaluazioa gidaren helburua da irakasleei ideiak, aholkuak, laguntza eta argibideak ematea, baina irakasle taldeen, sailen eta ikastegien esku dago metodologia zehaztea irakaskuntzaren ebaluazioa ahalik eta ondoen egokitzeko baldintza errealak.

Azkenik, azpimarratu behar da Unibertsitateak etengabeko ebaluazioaren alde egiten duela, ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak jasotzen duen bezala, eta, horregatik, egoera hauetan, sistema hori jarraituz bideratu beharko lirateke ahaleginak, azken ebaluazioa egiteko eskubidea alde batera utzi gabe.




## 2.- URRUTIKO EBALUAZIOARI BURUZKO AHOLKU OROKORRAK

### 2.1. EGUTEGIA

Oinarrizko egutegi ofizialak indarrean jarraitzen du, eta, era berean, indarrean jarraitzen dute ikastegietako egutegiek edo masterretako titulazioetarako egutegiek. Helburua da irakats jarduna eta ikasturtearen amaiera beharrezkoa den heinean baino ez luzatzea, ikasturtea gehiegi luzatzeak ikasleei eragingo lieken kaltea saiheste aldera.

Aparteko kasu batzuetan, baina, luzatu ahal izango dira egutegi ofizialean zehaztutako epeak. Irakasgai esperimentalen edo klinikoen kasuan edo ezaugarriak kontuan hartuta ebaluazioa presentziala izan behar denean, eta kasu horietan baino ez, ebaluaziorako ohiko deialdia ekainaren 25era arte luzatu ahal izango da, [ebaluazioa egokitzeko prozedurari jarraituz](#). Proba horiek egiteko, osasun agintarien aginduz pertsonen artean gorde beharreko distantziak eta gainontzeko baldintzak bete beharko dira (aforoa, gutxieneko distantzia, maskarak...). Probarako 15 egun falta direla ez badira baldintzak betetzen proba modu presentzialean egiteko, urrutitik egiteko modua jarriko da martxan; beraz, aurreikusita egon behar da urrutitik egiteko aukera.



## 2.2. URRUTIKO EBALUAZIOA: ZER IZAN BEHAR DA KONTUAN?

Urrutiko ebaluazioa euskarri teknologikoen bidez egindako ariketa, proba eta jardueraz dago osatua, horien bidez ikasleek ikasi dutena dokumentatu eta balioesteko.


Jatorriz modu presentzialean emateko diseinatua izan den eta modu presentzialean emandako irakasgai bat urrutitik ebaluatzeko egin behar den egokitzapenak hausnarketa eta egoeraren azterketa izan behar ditu oinarri, batez ere kontuan izanda larrialdi egoeran egin beharra dagoela.

Hasierako gogoetako egiteko hiru galdera nagusi izan behar ditugu kontuan:

- a. **Maiztasuna:** zenbat aldiz egingo dugu ebaluazioa?
- b. **Gunea:** zein gunetan egingo ditugu probak?
- c. **Denbora:** Nola moldatuko dugu probak egiteko denbora?

Urrutiko ebaluazio sistemak hiru galdera horien eta erantzun posibleen **konbinazioa** izan beharko luke kontuan: ez dira bateraezinak diren bi ebaluazio mota, ezpada askotariko konbinazioak, ikaskuntzaren emaitzak neurtzeko aukera emango digutenak.

Edozelan ere, proba gunea eta denbora zorrotz kontrolatuta egin behar bada, arazo teknikoak izan ditzakegu eta proba oso baldintzatua egon daiteke. Horretaz jabetuta egon behar gara; izan ere, horrelako proba bat egiteko ekipo guztiek ondo funtzionatu behar dute, ez da gorabeherarik egon behar sarean, konexio guztiak bikainak izan behar dira eta hortaz gain, irakasleak nekez jakin dezake zer ari den gertatzen pantailaren beste aldean eta nekez kontrola dezake hori.



1. taula: kontuan izan beharreko parametroak urrutiko ebaluazioa diseinatzean.

<b>URRUTIKO EBALUAZIOA</b>		
<b>MAIZTASUNA</b>	Proba bakara	Hainbat proba
<b>GUNEA</b>	Ikasleak proba/ariketa oso ondo zaindutako gunean egingo du (telepresentzia)	Ikasleak modu autonomoan egingo du proba, berak kontrolatuta eta epe jakin batean aurkeztu behar du.
<b>DENBORA</b>	Ikasleak irakasleak adierazitako orduan egin behar du proba, ikaskideekin aldi berean.  (ebaluazio sinkronoa)	Ikasleak irakasleak adierazitako ariketa, lana edo proba egin behar du denbora jakin batean; berak bere kabuz egin behar du ataza.  (ebaluazio asinkronoa)

Oro har, gunea (ikasle dagoen tokia) zorrotz kontrolatzen bada, denbora ere zorrotz kontrolatu behar da (ebaluazio sinkronoa).

Proba sinkrono eta asinkronoen artean, ahal den guztietan, asinkronoa gomendatzen da. Proba egiteko denbora malgua izateak aukera ematen du saihesteko Internetarako konexioaren balizko mozketak arazoak eta galera puntualak, eta Internetarako konexio iraunkorrik ez duten ikasleen parte-hartzea bermatzen du, bai eta Covid-19aren ondorioz jatorrizko herrialdera itzuli diren eta ordutegi desfasea izan dezaketen atzerriko ikasleena ere.

Azken proba sinkronoa egin behar izanez gero, ebaluazio sistema beste proba, ariketa edo lan batzuekin konbinatzea gomendatzen da, ikaskuntzaren emaitzen ebaluazioa osatzeko eta prozesuari berme handiagoa emateko.



### 2.3. ARAZO ETIKO ETA LEGE ARAZOAK URRUTIKO EBALUAZIOAN



Etika eta zintzotasun akademikoko balioak bultzatuko dira. Horretarako, ikasleari gogoraraziko zaio [Zintzotasunez eta Portaera Etikoz Jokatzeko Konpromisoa](#), horren bidez adierazi baitzuen eta konpromisoa hartu baitzuen UPV/EHUn ikasten dagoen bitartean ez duela baliabide iruzurtirik erabiliko. Agiria eGelan egongo da eskuragarri.

Gomendagarria da irakasleak ikasleei [etika akademikoaren printzipioak](#) nabarmentzea, jakitun egon daitezen zein ondorio izan ditzakeen lana plagiitzeak, ikaskideei kopiatzeak, ikaskideei informazioa emateak ebaluazio proba egiten ari diren bitartean, azterketa beste ikasle baten nortasuna erabilia egiteak edo debekatutako materiala erabiltzeak proba egiteko.

Dokumentu hau aplikatuz egiten diren datu pertsonalen tratamenduek datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoa errespetatuko dute. Ondorioz, ikasleen ezagutzak egiaztatzeko behar-beharrezkoak eta egokiak diren izaera pertsonaleko datuak tratatuko dira, zilegitasun-, leialtasun- eta gardentasun-printzipioen arabera, bai eta osotasun- eta konfidentzialtasun-printzipioen arabera ere.

Ikaslea identifikatzeko [eGela](#)n sartzeko erabiltzen den identifikazio bidea erabiliko da (erabiltzailea eta pasahitza), eta horrek ikasleak egiten dituen jarduera guztiak erregistratzeko eta jarraipena egiteko aukera ematen du.

Edozein ikasleri eskatu ahal izango zaio bere burua identifikatzeko, eta, beraz, edozein unetan eska dakioke kamera aktibatzea, Unibertsitateko Ikasleen Estatutuan jasotzen den bezala.


Ahozko proba baten kasuan, ahotsa grabatzea ikasleen eskubidea da, Ikasleen Ebaluaziorako Arautegian jasotzen denaren arabera. Horregatik, proba egin aurretik, ikasleari eskubide hori duela jakinaraztea eta balizko erreklamazioetarako erabiltzea komeni dela azpimarratzea gomendatzen da (hala ez balitz, ebidentziatzat hartuko da irakasleak erregistratuko duena, proba egiten den bitartean, alde aurretik ikaslea identifikatuta eta ahotsa grabatzen den ala ez adierazita).

UPV/EHUK baztertu egin du proctoring edo aurpegi errekonozimenduko sistemak erabiltzea azterketa online egingo duen ikaslea identifikatzeko. Oso zaila da software hori erabiltzea, lege arloko zalantzak sortzen ditu, irakasleek prestakuntza berezia beharko lukete eta ikasle askok ez dauka horretarako beharko litzatekeen baliabide teknologikorik.




## 2.4. HEZKUNTZA INKLUSIBOA

UPV/EHUK ahultasun egoeran egon daitezkeen ikasleei arreta emateko eta ikasle horien inklusioaren aldeko bokazioa dauka eta, horrela, bada, irakasleei eta laguntza zerbitzuei eskatzen diegu egoera berezi honetan ebaluazio sistema diseinatzerakoan eta kudeatzean bereziki sentikorrak izan daitezzen. Ildo horretan, erne egoteko, aholkularitza eta laguntza eskatzeko eta malgutasun irizpideekin jarduteko eskatzen diegu:



### 3.- IRAKASKUNTZA GIDAK EGOKITZEA URRUTIKO EBALUAZIO SISTEMA EZARTZEKO

Unibertsitatearen araudi akademikoaren arabera onartutako eta UPV/EHUren webgunean onartutako irakaskuntza gidak gaur egungo aparteko egoerara egokitu beharko dira, ebaluazioari dagokionean, eta apirilaren 30a baino lehen egin beharko da egokitzapen hori. Egokitzapena egiteko, ados jarri behar dira irakasgaia ematen duten irakasle guztiak, eta irakasgaiko koordinatzaileak egingo du. Irakaskuntza gidak egokitzean, koherentzia zaindu beharko da oraingo irakaskuntza modalitatearen eta ebaluazioaren artean.



#### 3.1. PAUTAS BÁSICAS

Ondoren zenbait jarraibide daude, urrutiko ebaluazioa diseinatzerakoan kontuan hartu beharrekoak:

1. Irizpide nagusia izan behar da ebaluazio sistema egokitzearen helburua izan behar dela ikaskuntzaren emaitzak baloratzea kontuan izanda bizi dugun egoera berezi hau.
2. Gomendioa da batez ere ikasleak irakasgaian egin duen lana baloratzea, bai jarduera presentzia eten aurretik egindakoa, bai gero egindakoa, eta oinarritzko ikaskuntzan jartzea enfasia.
3. Ezinbestekoa da ikasleari eGelaren bidez informazioa ematea, tresnetan eta ebaluazio irizpideetan egindako egokitzapenei buruzkoa.
4. Oro har, gomendioa da proba sinkronorik ez erabiltzea irakasgaia ebaluatze bide bakartzat. Erabiltzekotan, aldeztu aurretik proba bat egin behar da ikasleekin ikusteko behar bezala funtzionatzen duela eta izan daitezkeen gorabeherak eta disfuntzioak antzemateko.

- Adapta solo lo que resulte imprescindible para que la evaluación sea viable y satisfactoria: hay que buscar un equilibrio entre lo factible y lo deseable.

- Recuerda: tus estudiantes están trabajando en una situación de dificultad y presión.



- Prueba con el alumnado las herramientas de eGela que vayas a utilizar en la evaluación con carácter previo.

- Explora las posibilidades de evaluación que no exijan un alto control del entorno de los y las estudiantes.

- Reajusta los porcentajes de calificación, de manera que se adapten a esta realidad de emergencia.

- Comunica los criterios de evaluación. Si se dispone de una rúbrica, ponla a disposición del alumnado.


5. Gomendioa da ahal den heinean proba asinkronoak erabiltzea, gunea eta probarako denbora zorrotz kontrolatu beharra eskatzen ez dutenak.
6. Ebaluazio orokorreko eta azken ebaluazioko probarik eginez gero, edo probaren bat ezinbestean gainditu beharra badago irakasgaiaren ebaluazioa aldekoa izan dadin, gomendioa da proba horrek ez baldintzatzea azken nota, eta horren osagarri, ahal den heinean, beste proba edo lan batzuk eskatzea.
7. Eduki teorikoak ebaluatzeko probetan, gomendioa da galdera sorta zabala izatea ausaz aukeratua, eta denbora tarte bat zehaztea erantzuteko, baina, betiere, kontuan izanda ebaluazio sistema bera izan arran ikasle guztientzat, batzuek aparteko arazoak izan ditzaketela proba egiteko.
8. Gomendioa da testuak garatzeko galderak jartzea, kontzeptuen aplikazio praktikoak edo egoera konkrituak, ikasleak ulertu duela erakusten dutenak eta ikasleari gaitasun logiko eta intelektuala erabiltzea eskatzen diotenak. Azterketa on bat izango litzateke modu presentzian egiteko prestatuko genukeen hura, baina ikasleek material guztiak edo Internet erabilita.



### 3.2. EGOKITUTAKO IRAKASKUNTZA GIDAK GESTIONATZEA, ONARTZEA ETA ARTXIBATZEA

Irakaskuntza gidien egokitzapena behar bezala gestionatzeko ikastegi edo/eta titulazioko barne bermeen sistemari jarraituz, eta gardentasun irizpideak betetzeko, prozedura honi jarraituko zaio ahalik eta bizkorren:

1. Egokitzapenak agiri batean jaso argi zehaztuta ondokoak: ebaluazio probak, kalifikazioen ehunekoak eta ebaluazio irizpideak. Lagungarri izan daiteke GAUR aplikazioko eredu erabiltzea edo horretarako prestatu dugun txantiloia (aukerakoa).
2. Irakasgaiaren berezitasunak direla-eta aurrez aurreko ebaluazioa behar duten irakasgaien irakaskuntza gidak ebaluazio ez-presentziala egiteko proposamen bat ere jasoko dute, eta aukera hori abian jarriko da baldin eta probako data baino bi aste lehenago probak aurrez aurre egiteko osasun baldintzak betetzen ez badira.
3. Irakasgaiaren ardura daukan ikastegi edo sailean onartu, artxibatu... eta sailak onartu baldin badu, titulazioaren ardura daukan ikastegira bidali, horrek oniritzia eman dezan Ikasleen Kontseilua entzun ondoren. Prozesu hori ahalik eta erraz eta arinen egin behar da.
4. Ikasleari etengabeko ebaluazioaren eta azken ebaluazioaren baldintzen berri eman behar zaio irakasgaiaren eGelaren bidez, mailako eGelaren bidez, posta elektronikoz edo beste bitarteko batzuen bidez, betiere, komunikazio gardena ziurtatuta eta zalantzak argituz.
5. Titulazioko koordinatzaileak pdf dokumentu batean jaso behar ditu irakasgaien egokitzapen guztiak, mailaka eta titulazioka, eta Unikudera igo behar ditu KBBS-n erregistratzeko.
6. Sailek eta ikastegiek Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuaren laguntza izango dute irakaskuntza gida egokituak izapidetu eta gestionatzeko ([calidad@ehu.es](mailto:calidad@ehu.es)).
7. Egoera berezi honetan, ebaluazioari buruzko erreklamazioak irakaskuntza gida egokitan zehaztutakoari jarraikiz aztertuko dira.



## 4.- URRUTIKO EBALUAZIORAKO ESKURAGARRI DAUDEN ESTRATEGIA ETA BALIABIDEAK

Urrutiko ebaluazioa egiteko hainbat tresna edo proba erabil daitezke, helburua izanik egiaztatzea, baloratzeta, balioestea eta frogatzea ikasleak ikaskuntza prozesuan emaitza batzuk lortu dituela. Edozelan ere, aukeratzen dugun tresna edo proba egokitu egin beharko da ebaluatu nahi dugun ikaskuntza motara. Hona hemen laguntza orokorra, aukerak zabalak diren arren:

Ikasleak gaiaren oinarrizko ezagutzak dituela eta ulertzen dituela egiaztatzeko:

- a. Test motako proba: hainbat erantzun aukeran, egia-gezurra... (galdera sorta)
- b. Galdera laburrak (ataza bat, ahozko proba BBC bidez, galdera sorta).

Ezagutza aplikatzeko eta argumentatzeko gaitasuna ebaluatzeko:

- a. Problemak, kasuak edo ariketak (artxiiboak bidaltzea hainbat formatutan).
- b. Proba idatzia gai bat garatzeko (ataza).
- c. Ahozko proba; aurretiaz egindako proba idatziaren osagarri izan daiteke.
- d. Simulazioak.

Judizioa eman ahal izateko datu garrantzitsuak bildu eta interpretatzeko gaitasuna baloratzeko (barne hartuta analisi eta judizio profesional edota zientifikoa):

- a. Banakako lanak edo taldean egitekoak: problemen ebazpena, proiektuen diseinua (atazak, ahozko proba BBCn edo portfolioan).
- b. Monografiak egitea, saiakerak, gaiaren egungo egoera, txosten adituak datu kuantitatiboak erabilia, esku hartze proiektuak, eragin analisiak (ekonomia, gizarte, ingurugiro... arlokoak).
- c. Kasu klinikoak, juridikoak... ebazpena.

Euskarri desberdinak erabilia informazioa eta ideiak osatu eta igortzeko gaitasuna ebaluatzeko:

- a. Lanak aurkeztu eta defendatzea (lana artxiboen bidez bidaltzea formatu desberdinetan, ahozko proba BBCn edo portfolioan).
- b. Bideoak, aurkezpen grafikoak, animazioak... egitea.

#### 4.1. TEST MOTAKO GALDERA SORTAK ETA PROBAK

- Proba sinkronoak izaten dira, oinarrizko ezagutza ebaluatzerantz bideratuak, eta ikasleak bere gaitasuna soilik erabili behar du, beste baliabiderik gabe, eta denbora mugatua izaten da.

- Garrantzitsua da kontuan hartzea probarako denbora zehaztea modu asinkronoan egiteko, horrela ikasleak aukera izan dezan proba egiteko hainbat aldiz konektatuta; horrela eginez gero, saihestu egiten dira konexio arazoak eta erraztu atzeritiko ikasleak konektatzeko aukera, batzuk, agian, beste ordu eremu batekoak izan daitezke eta. Ez ahaztu, bestalde, ikasle batzuek aparteko zailtasuna izan dezaketela proba formatu horretan egiteko.


- Test motako probetan, ikasleak aukera izan behar du erraz bueltatzeko erantzun gabe utzi duen galderara, horrela modu presentzialean egingo litzatekeen probaren ahalik eta antzekoena izan dadin.

- Egin da inoiz probaren bat zeinetan ikasleek berek prestatzen duten galdera sorta eta, gero, irakaslearekin aztertu eta eztabaidatu egindako lana galderak eta emaitzak zuzendu eta zehazteko. Ondoren, galdera horiek erabili izan dira proba sinkronoan egiteko. Prestakuntzarako balio handiko jardura da.

- Erantzun irekiko edo garatu beharreko galdera sortak oso sarri erabiltzen dira denbora sinkrono errealean egindako probetan, ikasleak denbora mugatuan egin beharrekoetan. Bada horretarako tresna bat eGelan.

- Matematika probetan edo antzekoetan ikasleak orrian eta arkatzarekin egin dezake proba eta, gero, argazkia egin eta zehaztutako denboran eGelaren bidez bidali.


- Edozein izanda ere proba mota, bermatu egin behar da ikasle guztiek dituztela proba egiteko behar diren baliabide teknologikoak, eta kontuan hartu beti egon daitekeela aurreikusi eta kontrolatu ezin daitekeen egoeraren bat proba arriskuan jar dezakeena.



Aholkuak proba osatzeko:

- Test motako galdera sorta prestatu probarako beharko den galdera kopurua baino gehiago zehaztuta eta kategoriaka sailkatu.
- Galderak eta aukerako erantzunak ausaz sortu.
- Proba egiteko denbora mugatu.
- Erantzunak arrazoitzea eskatu (galdera irekietan-saiakeretan).
- Denbora luzeko proba bada, kontuan hartu zatika egiteko aukera, mota desberdineko probak jarrita.
- Aukerako plan bat zehaztu proba egin bitartean konexio arazorik edo antzekorik egonez gero beste aukera batzuk izateko eskura.

Garrantzitsua da proba mota hau neurritz erabiltzea urrutitik egin behar denean, ez da-eta erraza egoera kontrolatzea eta bermatzea ikasle guztiek dituztela baldintza egokiak proba egiteko, batez ere taldea handia denean.



## 4.2. AHOZKO PROBAK

- Ahozko probak modu sinkronoan egin daitezke, eta aukera zabala ematen dute urrutiko ebaluaziorako: bideokonferentzia bidez egin daitezke edo bideoa grabatu eta ondoren edukiari buruzko eztabaida egin. Proba hauek egiteko oso erabilgarria da eGelako BBC tresna edo antzeko beste batzuk, aukera ematen dute-eta irakasleen eta ikasleen artean zuzeneko interakzioa izateko, banaka edo taldean, eta artxiboak konpartitzeko aukera ere badute.

- Ahozko probek aukera zabala ematen dute eta taldean egindako lanaren osagarri izan daitezke: taldean egindako lan horri buruzko galderei erantzun eta kalifikazioaren parte izan daiteke. Talde handietan erabiltzeko estrategia bat izan daiteke. Gainera, erraz egin daiteke mugikorrek erabilia.

- Aholkuak proba osatzeko:

- a. eGelako BBCn talde osorako bilerak edo taldeka banatuak zehaztu, egingo den probaren arabera.
- b. Ikasleari aurkezle rola eman berak nahi duenean parte hartu dezan.
- c. BBCK dituen baliabideei buruzko azalpen batzuk eman (txata, bozketa, artxiboak eta aplikazioak konpartitu), eta argi utzi probak dirauen bitartean horiek erabiltzerik dagoen edo ez.

- Gomendagarri da, ahal bada, ahozko proba hauek grabatzea eta gordeta izatea behintzat aktak sinatu arte, grabazioak erabilgarri izan baitaitezke bai kalifikazioak berrikusteko, bai ikasleekin feedbacka egiteko. Ezin dugu ahaztu ikasleen eskubidea dela eta ondorioz aukera eman behar zaio, espreski zehaztuz irudia ez dela grabatuko, ahotsa besterik ez.




### 4.3. AURKEZTU BEHARREKOAK

- Aurkeztu beharrekoen bidez aukera dago ikaslearen ikaskuntza ebaluatzeko. Ikasleak eduki digitalean egindako lanak aurkezten ditu eta ondoren aztertu, balioetsi eta kalifikatu egiten dira, eta ikaslearekin elkarrizketa ere sor daiteke. Mota honetako jarduera egiteko oso erabilgarria da eGelako atazen baliabidea. Lan hauek, oro har, asinkronoak dira.

- eGelako ataza aukeraren bidez hainbat proba eta lan egin eta hartu daitezke: galdera laburrak, gai bat garatzeko proba idatziak, problemak eta ariketak, proiektuak, txostenak edo lanak aurkeztea (banaka edo taldean).


- Lan hauetarako beste aukera bat "azterketa liburuarekin" edo gai bat garatzeko azterketa da: ikasleak gai bat aztertzen du oinarri hartuta ikasitako gaia, baina kritika pertsonala izan behar da ardatza. Ikasleak kontsulta materiala erabil dezake, baina lana egiteko denbora mugatua da. Lan hori osatzeko bideoan azalpen bat graba dezake edo irakasleak elkarrizketa egin diezaioke ikasleari arrazoiak azal ditzan.

- Ikasleak hainbat aukera ditu lan hauek aurkezteko: testu dokumentuak, kalkulu orriak, irudiak, audioak, bideoak eta abar. Ikasleek egindako bideoak (lanak aurkezteko, problemak ebazteko eta jarduerak azaltzeko) kontuan hartzeko moduko probak dira.



- Aholkuak proba osatzeko:

- a. Lana eskatzerakoan zehaztu zeintzuk diren lana egiteko eta aurkezteko baldintzak eta zein formatutan aurkeztu behar den.
- b. Lana sinkronoa bada, eskatu ikasleei testua eremu batean idazteko testu editorea erabilia.
- c. Ikasleei esan bidali botoia sakatu behar dutela; azpimarratu ezinbestekoa dela hori egitea.
- d. Taldean egin beharreko lana denean, taldeka aurkezteko aukera jarri.
- e. Zehaztu kasu bakoitzerako ikasleekin feedbacka izateko bidea eta denborak.




#### 4.4. LANAK, PROIEKTUAK ETA PORTFOLIOAK


Kasu hauetan proba egiteko denbora luzea da eta ikasleek berek antolatu behar dute denbora eta autonomoak izan behar dira. Proba isolatuak izan daitezke edo bata bestearen osagarri azken lan bat osatzeko, problemetan oinarritutako ikaskuntzan, proiektuetan oinarritutakoan, kasu klinikoetan oinarritutakoan edo ikerketan oinarritutakoan egiten den bezala.

Lanak, proiektuak eta portfolioak diseinatzeko aholkuak:

- a. Ikasle bakoitzarentzako gogoetarako elementuak adierazi, testuingurua ondo zehaztuta, gordailuetan dauden lanetatik kopiatzeko tentaziorik izanez gero ez dezaten erraz izan.
- b. Lan horretaz gain, ahozko aurkezpena edo elkarrizketa egin daiteke ikasleak gaiaren inguruan dakiena egiaztatzeko eta gaitasun maila zehazteko.
- c. Ikasleei argi azaldu eta irizpide argiak eman lan akademikoa egiteko: datu baseak nola erabili, Interneteko informazioa nola erabili, iturriak nola aipatu eta abar.
- d. Plagioaren kontrako programak nola erabili azaldu, horrela ikasleek berek egiaztatu ahal izango dute egindako lanak beste batzuekin zenbaterainoko antzekotasuna daukan.




Lan horiek eGelaren bidez gestiona daitezke ataza moduan edo eGela Portfolioaren [eGela Portfolio](#) bidez.



## 5. AHOLKUAK KANPOKO PRAKTIKETARAKO ETA PRESTAKUNTZA DUALERAKO


Osasun alarmako egoerak eragina izan du, neurri handiagoan edo txikiagoan, lan arloan curriculumeko eta borondatezko kanpoko praktikak egiten ari ziren graduako eta masterreko titulazioetako ikasleengan, bai eta prestakuntza dualeko ikasle izanda enpresetan egonaldiak egiten ari zirenenagan ere. Kasu horietarako, irizpide espezifiko batzuk ezarri behar dira praktiken eta/edo egonaldien ezaugarrien arabera, kasu partikularrak kontuan hartuta. Hala ere, oro har, honako ohar hauek hartuko dira kontuan:



- Curriculumeko praktikak edo prestakuntza dualak eskatzen duen egonaldia amaitu ez duten azken mailako ikasleen kasuan, ebaluazioa egiteko nahikoa ebidentzia baldin badago (aurrez aurreko jarduera eta mintegiak edo jarduera ez-presentzialak), ikastegiak proposamen bat egingo dio Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzari, eta, baimena eman ondoren, kalifikatu egingo du.

- Azken ikasturteko ikasleen curriculumeko praktika edo prestakuntza dualak eskatzen duen egonaldia nahitaez bete behar bada eta ebaluatu ezin bada -hasi ez delako edo egun gutxi iraun duelako-, ikastegiak aztertu egingo du ikasturte honetan egiteko aukera, betiere osasun egoerak horretarako aukera ematen badu. Horretarako, proposamena aurkeztuko dio Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzari, eta baimena emanaz gero, ikastegiak aldatu egingo ditu deialdietako datak, baina, edozelan ere, kalifikazioa espedientean jaso ahal izateko, 2020ko urriaren 31 da azken eguna.

- Azken mailatik beherako ikasleen curriculumeko praktika edo prestakuntza dualak eskatzen duen egonaldia nahitaez bete behar bada eta ebaluatu ezin bada, Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak 2020ko apirilaren 8an emandako jarraibideak beteko dira, eta, edozelan ere, aktak ixteko azken eguna 2020ko uztailaren 31 izango da.




- Ikasleak ez baditu borondatezko praktikak bete, baina nahiko ebidentzia badago (aurrez aurreko jarduerak edo/eta jarduera ez-presentzialak), ebaluatu egingo da.

- Borondatezko praktikak ezin badira ebaluatu praktika aldia laburregia izan delako, "praktikak ezin dira ebaluatu" ageriko da jasota.

Edozelan ere, kasu guztietan kontuan hartuko da osasun alarmak eragindako kanpoko praktikak eta prestakuntza dualeko egonaldiak erregistratzeko gida, ikastegietako praktika programen arduradunei bidalia.

## 6.- GRADU AMAIERAKO LANEN, MASTER AMAIERAKO LANEN EDO DOKTOREGO TESIEN DEFENTSA

### 6.1.- GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)/MASTER AMAIERAKO LANA (MAL)



- Gomendioa da urrutiko tutoretzak indartzea biodekonferentzien (<https://www.ehu.eus/bilerak>), posta elektronikoaren, telefonoaren edo komunikaziorako bitarteko izan daitekeen beste edozein bideren bidez, ikasleari laguntza emateko GRALa/MALa modu autonomoan egiteko zehaztutako planari jarraikiz.

- GRALa/MALa kanpoko praktikei lotuta badago, gomendioa da zuzendariarekin beste bide bat adostea presentzialak ez diren jardueren bidez landu daitezkeen gaiak garatzeko.

- GRALa/MALa esperimentalak bada edo landa jarduera egin beharra badauka, gomendioa da lana moldatzea datu esperimental gutxiago erabiltzeko edo berrikuspen bibliografikoak erabiltzeko, betiere, ahalegina eginda aurreikusitako gaitasunak lortzeko. Lana egiteko aurrez aurreko ikerketa edo landa ikerketa egin behar baldin bada, jarduera horiek egin ahal izango dira baldin eta osasun agintariek baimena ematen badute eta ikerketa zentroek nahitaezko distantzia eta higiene neurriak betetzen badituzte, eta birprogramatu eta atzeratu ahal izango dira, kontuan hartuta GRALen eta MALen kalifikazioak 2020ko urriaren 31 baino lehen jaso beharko direla espedienteetan.

- Lanaren jendaurreko defentsa urrutitik egin daiteke, biodekonferentzia bidez, ikaslearen nortasuna bermatuta eta behar bezalako zabalkundea emanda ekintzari.



## 6.2.- DOKTOREGO TESIAK

Doktorego tesiak bideokonferentzia bidez, urrutitik, defendatu ahal izango dira, Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak emandako jarraibideen arabera eta kontuan hartuta aholku hauek:

-Alarma egoerak dirauen bitartean, doktoregaiak erregistro elektronikoen bidez egin beharko ditu tesia gordailuan uzteko izapide guztiak.

- Bermatu egingo da tesia jendaurrean egongo dela eta defentsa eskuragarri dauden bide telematikoen bidez egingo dela.

- Doktorego tesiaren defentsa UPV/EHUren lokaletan egingo da bertan dela, gutxien dela, epaimahaiko UPV/EHUko kidea eta doktoregaia, eta gainontzeko pertsonak bitarteko telematikoen bidez. Aparteko kasuetan, egoera kontuan hartuta, baimena eman ahal izango da pertsona guztiak bitarteko telematikoen bidez aritzeko.

- Isilpean gordeko dira epaimahaikideen eztabaidak, eta isilpean gordeko dira ere Cum Laude lortzeko eta Sari Berezira aurkezteko egingo diren bozketak. Gomendioa da Blackboard Collaborate edo antzeko bitarteko bat erabiltzea, gela birtual horrek aukera ematen du-eta gela paralelo bat sortzeko epaimahaiaren eztabaidetarako.



